

11 eguneko greba egingo dute Tolosako kiroldeko langileek

Lan eta bizi baldintzak hobetuko dituen hitzarmena aldarrikatzen dute bertako 35 langileek; gaur elkarretaratzea egingo dute, bihar hasiko dute greba eta martxoaren 26ra arte luzatuko da // 4

«T3T probagatik ez balitz, agian ez nintzen lasterketetan hasiko»

IÑAKI OLANO
MENDI LASTERKARIA

Apustu batengatik Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuen altzotarrak, eta ondoren, T3Tn parte hartu eta gero murgildu zen lasterketetan // 6

Tolosako Oyarbide eraikina botatzen hasiko dira gaur

Hilabeteko iraupena izango du obrak; ondoren, Gorriti plaza inguruko eremu osoa berrituko dute, eta urte amaierarako amaitzea aurreikusi dute // 3

Txirrindulari lasterketen egutegia zabaldu egin dute

Moto-loturek izan ditzaketen istripu gastuei aurre egiteko diru poltsa sortu dute; igandean Danenak lasterketa bat antolatu zuen // 7



IBARRA

KOMIKIAK LIBURUAN

Ibarra-Galtzako komiki lehiaketako azken bi edizioetan irabazle izan diren 22 lanak bildu dituzte liburuxka batean; aurrerantzean, bi urtetik behin liburua argitaratzeko asmoa azaldu dute Galtzaundik eta Ibarako Udalak // 5



Geuretik Sortuak bekan parte hartuko du Villabonak

Eñaut Aiartzaguena komikigileak Amasa-Villabonan hiru asteko egonaldia egingo du; basoen kudeaketaz komiki bat sortuko du

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak Geuretik Sortuak kultur ekimenaren bigarren edizioan parte hartuko du. Egitasmo honen bidez Euskal Herriko hainbat udalerritan sormen egonaldiak burutzeko bekak eskainiko zaizkie kultur sortzaileei, hauek euskaraz izango diren nobela motzak, antzezlanak, film laburrak edo komikiak sor ditzaten. Iurretako Eñaut Aiartzaguena komikigileak garatuko du bere sormen lana Amasa-Villabonan.

Geuretik Sortuak egitasmoaren bigarren edizio honetan 23 kultur sortzailek eta Euskal Herri osoko 39 udalerririk parte hartuko dute. Udalbiltza Partzueroko balioespen batzordeak erabaki du sortzaile bakoitzaren norakoa. Aurten, adibidez, Leiza eta Berastegi artean egingo du egonaldia Unai Gaztelumendi ilustratzaileak. Aiartzaguena, bere aldetik, «pozik eta eskertuta» agertu da Amasa-Villabonan bere lana garatzeko eman dioten aukeragatik, eskertuta Amasa-Villabonako Udalarekin, Udalbiltzarekin eta egitasmoan parte hartzen duten gainerako eragileekin ere. «Komikigile bezala aritzen naiz, baina ez naiz hain eza-guna. Euskarazko sortzaileontzat horrelako proiektuak garatzeko aukera oso gutxi egoten dira eta horregatik plazera da euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko beka sistema bat eskura edukitzea», esan du bekadunak. Arte Ederretako ikasketak eginak ditu eta hezkuntza ez

formaleko hezitzaile gisa jardun du hainbat elkartetan.

Ilustratzaile bizkaitarrak hiru asteko denbora eta espazioa izango ditu, Beatriz Unzue alkatearen esanetan, «berak aukeraturako gaia Amasa-Villabonako herritarrekin batera, eskuz esku landu dezan». Aiartzaguena egingo duen lana, eta gainontzeko udalerrietan beste artistek landuko dituztenak, kultur zirkuitu batean aurkeztuko dituzte datorren urtean.

Iaz Maitane Perez idazlearekin izandako esperientziak «zapora gozoa» utzi zuen herrian, Unzuek esan duenez. Horregatik, aurten ere, kultur sorkuntza sustatzeko ekimen honetan parte hartzen jarraitzea erabaki du Amasa-Villabonako Udalak. «Harro gaude Geuretik Sortuak kultur ekimeneko partaide izateaz. Guretzako oso pozgarria da, geurera etorritako kultur sortzaileen bidez, Amasa-Villabonan sortutako kalitatezko kultur ekoizpena edukitzea», esan du alkateak.

2023 eta 2024 urteetan egitasmo hau garatzeko 21.713 euroko ekarpena egin du Amasa-Villabonako Udalak, Udalbiltza partzueroarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez. «Aurten horietatik 13.813 euro bideratuko ditugu sorkuntza fase osoa garatzeko, eta datorren urtean beste 7.900 euro jarriko dira Geuretik Sortuak egitasmoan beste udalerrietan osatutako ekoizpenekin egingo den kultura zirkuituaren parte izateko», nabarmendu du Unzuek.




Eñaut Aiartzaguena, Beatriz Unzue eta Xabat Laborde aurkezpen ekitaldian. J.M.

Aiartzaguena basoen balio ekologikoan jarriko du azpimarra Amasa-Villabonan burutuko duen lanean. «Baso ustiaketan eta monokultiboen inguruko lanketa bat egitea da nire asmoa; interesa badut gai horretan. Hor-tik abiatuta jardungo dut komikia sortzeko», esan du sortzaile iurretarrak.

HIRU ASTEKO EGONALDIA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren helburuetako bat sorkuntza lanak tokian tokiko errealitatera egokitzea da. Aiartzaguena ere asmo horrekin jardungo du eta hiru asteko egonaldia egingo du Amasa-Villabonan. Egunotan iritsi da bertara eta lehenengo egunak ingurua



«Baso ustiaketan eta monokultiboen inguruko lanketa bat egitea da nire asmoa; interesa dut horretan»

«Jakini nahi nuke umeeek nola irudikatzen dituzten gero komikian sartuko ditudan pertsonaiak»

«Jakini dut badagoela baso ustiaketaren inguruko plan bat eta landaketa batzuk eginak dituztela»

EÑAUT AIARTZAGUENA
KOMIKIGILEA

ezagutzen eman ditu. «Dagoeneko eman ditut mendian lehen itzuliak eta herritarrekin ere izan ditut lehen hartu emanak». Beste hainbat lanekin ere uztartuko du Amasa-Villabonako bekaldia, eta honenbestez, egonaldiko hiru asteak denboran barreiatuko ditu. Apirila amaieran itzuliko da sorkuntza lanarekin jarraitzera.

«Lehenengo aste honetan gidoi moduko bat garatuko dut eta baita pertsonaiak irudikatu ere. Bigarren astean, Amasa-Villabonako ikastetxeetako umeeekin parte hartze saio batzuk egingo ditut euren ekarpenak jasotzeko», esan du Aiartzaguena. Bekaren emaitza Amasa-Villabonan girotutako haurrentzako komiki bat izango da. «Pertsonaia mitologikoak sartzea ere bada nire asmoa eta jakin nahi nuke umeeek nola irudikatzen dituzten gero komikian sartuko ditudan pertsonaiak». Hirugarren astea *storyboard*-a osatzeko baliatuko du.

Udalbiltzak Geuretik Sortuak egitasmoaren amaieran sortutako komikiak bilduma batean argitaratuko ditu, datorren irailean. Ordurako lana prest edukiko du Aiartzaguena. «Amasa-Villabonako historia eta kultura bertan txertatuta agertzea gustatuko litzaidake. Udalarekin eta bertako eragileekin izan ditudan lehen solasaldietan jakin dut badagoela herrian baso ustiaketaren inguruko plan bat eta landaketa batzuk eginak dituztela Amasamendin. Bizkaitik etorrita, berria egiten zait hori guztia, han pinuek eta eukaliptoek hartua baitute ingurune guztia. Hemen egin den lanketa hori guztia nire proiektuan txertatzen saiatuko naiz, eta besteak beste, udal-etik bultzatu den lanaren balioa azpimarratuko dut», esan du Aiartzaguena.

Amezketan 'Gelatik Plazara' saioa egingo dute martxoaren 31n

Saioetako bat Amezketan egingo dute martxoaren 31n; guztira 170 bertsolari gaztek hartuko dute parte ekimen honetan

Erredakzioa Amezketan

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek bertso eskolekin elkarlanean *Gelatik Plazara* ekimena antolatzen du. 14 urtez azpiko ikasleei jendaurrean trebatzeko aukera eskainiko dien aisialdiko ekimena izango da. «Bertsoarekin gozatzeko gune bat izango dute bertso eskoletako gaztetxoek eta Eskolarteko txapelketara iritsi aurretik plazarako zubi lana egingen laguntzea da asmoa» antolatzaileek esan dutenez. Amezketan egingo dute saio horietako bat, martxoaren 31n.

Tokian tokiko bertso eskolak saio berean elkartuta ikasleek elkar ezagutzeko aukera izango dute ekimenaren bitartez, guztira, 3-4 lagunez osatutako taldeetan arituko baitira. 170 bertsolari gaztek hartuko dute parte *Gelatik Plazara* ekimenean eta zazpi saio antolatu dituzte. Horietako bi egin dituzte dagoeneko, Zumaietan eta Oñatin eta datorren martxoaren 24an Elgoibarren egingo dute hurrengo saioa.

Talde bakoitzak ondorengo lanak egin beharko ditu: prestatutako agurra; puntu erantzun koplan (oina emanda edo oinik eman gabe); gaia eta bi edo lau oin emanda kopla edo bertsoa osatu; eta bertsolari bati erantzuten, gaia emanda, kopletan. Saioaren bukaeran talde guztiek jasoko dute sariren bat, eta saioak aurkezteaz zein gaztetxoek lana epaitzeaz bertso eskoletako irakasleak arduratuko dira.

Martxoaren 31n, Gelatik Plazara ekimenaren barruko saio bat baino gehiago izango dira. Azkoitian, Lasarten, Ordizian eta Amezketan antolatu dituzte. Amezketan egingo duten saioa Zazpi iturri elkartean egingo dute eta Gelatik Plazara saioarekin batera, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren kanporaketa ere egingo dute bertan. Nikola Iraola, Oihan Navarro, Xuban Urdalleta, eta Harituzeko bertso eskolan ibiltzen diren Danel Etxeberria eta Lide Arregi ariko dira bertan.

Oyarbide eraikineko eranskina eraisten hasiko dira gaur

Lanek hilabeteko iraupena izango dute; udalak Gorriti plaza inguruko eremu osoa berrituko du, eta urte amaierarako amaituta izatea aurreikusi dute

Josu Artutxa Tolosa

Gaur hasiko da Tolosako Udala Oyarbide eraikineko eranskina eraisten. Lan horiek direla eta, segurtasuna bermatzeko, obra eremua itxiko dute eta errepide zati bat hartuko dute. «Halere, ibilgailuak igaro ahal izateko eremua egokitu egingo dute, eta beraz, uneoro bermatuta egongo da pasabidea», baieztatu du Patxi Amantegi zinegotziak.

Eraisketa lanek hilabeteko iraupena izango dutela aurreikusi du udalak, eta eraisketa lanak hastearekin batera, Agintari kaleko horma-bitartekoa iragazgaizteko eta estetikoki txukun jartzeko obren lizitazioa abiatuko du. «Beraz, hurrengo urratsa obra horiek gauzatzea izango da, eta ondoren etorriko da eremu osoaren eraberritze integrala», esan du Egoitz Sorozabal zinegotziak.

Gaur egun, eremua «degradatuta» dagoela esan du Sorozabalek. «Ez da erakargarria, ezta eroso ere, herritarrentzat. Beharrezkoa da beraz, eremu osoa era integralean zaharbertzea, mugikortasun paradigma berriei jarraituta, oinezkoen lehentasuna emateko eremuan, pertsonak erdigunean kokatzen dituen hiri eredu baten alde lanean jarraituz», gaineratu du.

Eremu osoaren eraberritzea urte amaierarako bukatuta egotea espero dutela esan dute. «Tolosako Alde Zaharraren sarrera historikoetako bat da, eta ondorioz, merezi duen proiektua da», adierazi dute udal gobernuko ordezkariak. Alkateak nabarmendu duenez, «legealdi honetako proiektu estrategiko eta garrantzitsuenetako bat» izan da Gorriti eremuko, bere ustez eremua berreskuratzea «lehentasunezkoa» delako. «Legealdi osoa daramagu proiektu honetan lanean, urratsak egiten eta oso pozgarria da, beraz, eraispen lanean hasiera iragartzea, ondoren etorriko baita eremu osoaren eraberritzea», gaineratu du.

Bertan eraikitzeke etxebizitza berrien inguruan galdetuta, So-



Proiektua gauzatuta, Gorriti plazak izango duen itxura. TOLOSako UDALA

rozabalek argi utzi du udal gobernuaren «lehentasuna» eremua berreskuratzea dela, eta esan du berreskuratze horrek, gerora, «ate berriak» irekiko dizkiola etxebizitza berriak eraikitzeke aukerari.

«KONPLEXUTASUN HANDIKOA»

Gorriti plazaren eremu osoa (RC2) «konplexutasun handikoa» dela adierazi du alkateak. «Jabetza pribatuak tarteko, legealdi honetan bi erosketa gauzatu behar izan ditugu eta hiru proiektu garatu ditugu eremu osoa behar bezala berreskuratzeke. Nahi baino gehiago luzatu da lanen hasiera, baina gaur eman-gu eremu osoa berreskuratuta eta zaharbertzeke lanen lehen pausoa», gaineratu du.

Lehenik, Oyarbide eraikineko eranskina eskuratu zuen udalak; ondoren, udalaren jabetzakoa ez zen beste lur zati bat ere eskuratu behar izan zuen. «Behin jabe-

tza guztiak eskuratuta, hiru proiektu garatu ditugu, eremua- ren eraberritze integrala hiru fasetan oinarrituta dagoelako eta esku hartze bakoitzak bere proiektu eta lanketa behar izan duelako», azaldu du Peonek.

OINEZKOEK LEHENTASUNA

Girder Ingenieros taldeak eta ALD estudioa enpresak gauzatu dute eremu osoaren proiektua, eta Gorriti plazaz gain, Andre Mari kalean ere esku hartuko dute. Guztira, eremua berreskuratzeke 1,3 milioi euroko inbertsioa egingo du udalak, erosketa, proiektuen idazketa eta hirigintza lanak barnebilduta. «Berrurbanizazio proiektuak helburua du eremua berreskuratzea, herritarren beharrei erantzunez, espazio atseginagoa eta irisgarriagoa izan dadin. Eta eremu osoari itxura homogeen edo bateratua emango zaio», esan du Sorozabalek.

Gorriti plazan plataforma bakar- ra eratuko dute, hau da, ibilgailuen eta oinezkoen arteko ko- existentzia edo partekatutako eremu bat sortuko dute. Asfalto inprimatua erabiliko dute, ibilgailuen abiadura murrizteko, Zumalakarregi kalean bezala. Oinezkoek izango dute lehentasuna, eta beraz, ibilgailuen trafiko- koa berrantolatuko dute.

Andre Mari kaleari dagokio- nez, asfalto inprimatuko zoladu- ra jarriko dute eta erre-ko bakar- reko galtzada bi erre-ko galtzada bihurtuko da, bi noranzkoetako zirkulaziorako. Andre Mari eta Agintari kaleen arteko eremua «trantsiziozko eremua» izango dela esan dute, loreontziak jarri- ko dituzte, eta edukiontzia- k ere bertan kokatuko dituzte; plata- forma berri batean jarriko dituz- te, gainera.

Ibaiaren alboan dagoen ere- mua izanik, pasealeku berria sortuko dute ibai ertzean, erai- sketa lanak egingo dituzten espa- zioan. Lorategi eremua eratuko dute, eserlekuekin, aisialdirako eta atsedenerako berdeguneekin eta jolas-eremu berriarekin. Lan- darediak «garrantzi berezia» izango du proiektuan, eta landa- re eta zuhaitzak landatuko dituz- te sortuko den berdegune ber- rian. Kale argiztapena ere berri- tuko dute, energia kontsumo baxuko argiak jarrita; eta euri- uren bilketarako sistema ere au- rreikusi dute, egungo trazadura mantenduz.

Eskualdean bizikletaz egiteko bi ibilbide osatu dituzte

Erredakzioa

Txirrindularitzako bi proba han- di Tolosalde- tik igaroko dira aur- ten. Batetik, Frantziako Tourra Euskal Herrian hasiko da, eta bi- garren etaparen zati batean es- kualde- tik igaroko dira. Hain jus- tu, Abaltzisketa, Amezketa, Ale- gia, Leaburu-Txarama, Ibarra, Tolosa, Irura, Alkiza eta Villabo- na zeharkatuko dituzte. Beste- tik, Itzuliaren hirugarren etapan ere, Tolosalde- tik igaroko dira txi- rrindulariak, eta amaiera ere bertan izango du etapak, Villa- bonan zehazki. Hori ikusita, eta Tolosaldean txirrindularitzak zale ugari dituela kontuan har- tuz, Tolosaldea Garatzenek bizi- kletaz egiteko bi ibilbide presta- tu ditu. Tolosalde- tik igaroko di- ren Tourreko etapa eta Itzuliarekin bat egiten duten proposamenak dira, eta bisita- riak erakartzeko helburua ere baduela ekimenak azaldu dute. Gainera, *Tolosaldea.eus*, bizikle- taz gozatzeko eskualdean dau- den aukerak jaso dituzte.

Lehen Tolosa, Anoeta, Villa- bona, Aduna, Zizurkil, Alkiza, Anoeta eta Tolosatik igarotzen da. 30,54 kilometroko luzera eta 451 metroko desnibel positiboa du. Ordu eta erdian egiteko ibil- bidea da, eta zailtasun ertaine- koa. Bigarrena, Tolosan hasten da eta Alegia, Orendain, Abal- tzisketa, Amezketa eta Altzotik igaro ondoren Tolosan amaitzen da. 30,33 kilometroko bidea da, 541 metroko desnibel positiboa du. Ordu eta laurdenaren azpitik egiteko modukoa eta zailtasun maila ertainekoa dela esan dute.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 130€ • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 64mm): 180€ • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 64mm): 80€ • Harpidedunentzat 40€ bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Irati Saizar Artola Tolosa

Lan eta bizi baldintzak hobetuko dituen hitzarmen baten alde greba egingo dute Tolosako kiroldegiko langileek, bihartik martxoaren 26ra. Gaur, 17:30ean, elkarretaratzea egingo dute, Usabal kiroldegi aurrean.

Kiroldegian zerbitzua ematen duten langileak BPXport S.L.U. enpresaren bidez daude azpikontratatu. Tolosako Udalarekin dira instalazioak, eta lizitazio bidez kudeatzen du enpresa horrek zerbitzu publikoa. ELA sindikatuak adierazi duenez, 35 langile inguru dira denera. Besteak beste, Usabal kiroldegian, Berazubiko udal kirol instalazioan, eta Beotibar eta Uzturpe pilotalekuan egiten dute lan langile horiek.

Sindikatuak esan duenez, 2019tik ez dute hobekuntzarik izan lan baldintzetan: «2020ko martxoan, hitzarmen berriaren negoziaketa hastera zihoanean, pandemia etorri zen, eta gogor eragin zuen kiroldegietan. Behin pandemia pasata, lizitazio berriarekin enpresa aldaketa etorri zen, Kirolzer enpresak kudeatze-tik BPXport enpresak kudeatzera pasa zen, eta negoziaketa 2023ra atzeratzea ekarri zuen horrek».

Esan dute langileak udalarekin eta enpresarekin bildu direla beraien egoera azaltzeko, baina ez dutela «inolako aurrerapausorik» izan eta langileentzat «onar-tezina» dela.

Batetik, soldataren hobekuntza eta eguneratzea eskatzen dute, eta bestetik, gainerako lan baldintzen erregularizazioa. «Urte hauetan guztietan erosahalmena galdu dute langileek, denok dakigu KPI altuak izan direla azken urteetan eta erosahalmen galera nabarmena ekarri du horrek», esan du ELA sindikatuak.

Lanaldiari dagokionean ere hutsuneak dituztela salatu dute: «Lanaldi partzial asko dituzte, zaila zaie lanaldi osora egotea. Tolosako kiroldegian, zerbitzu

Tolosako kiroldegiko langileek greba egingo dute hamaika egunez

Bihar izango dute grebako lehen eguna eta martxoaren 26ra arte luzatuko dute; lan eta bizi baldintzak hobetuko dituen hitzarmena aldarrikatzen dute 35 langile inguruk



Tolosako kiroldegiko langileek greba egingo dute bihartik aurrera, hamaika egunez. Argazkian, Usabal kiroldegia. ATARIA

integrala izanik, monitoreak berdin-berdin egin ditzake sorosle lanak edota harrerakoak, eta horrek lanaldietan hobekuntza ekartzen badu ere, lanaldi partzial asko topatzen ditugu». Horri aurre egiteko klausula batzuk txertatu nahi dituztela hitzarmenean esan dute.

Bestalde, klaseen prestakuntzari dagokionean ere hobekuntzak nahi dituzte. «Hitzarmenak klaseak prestatzeko denbora jakin bat jasotzen du, baina ez da nahikoa» argitu dute. Asteburuetako lana ere erregularatu nahi dute.

Orain arte, enpresak proposamen bakarra egin die langileei, ELAk jakitera eman duenez: %1eko soldata igoera proposatu die 2023rako. «Irtenbide horrek erosahaltenaren berreskurapenean aurrerapauso txikia ekartzen du, eta beste puntuak ez dira aipatu ere egiten». Esan dute ez dela «negoziaketa serioa».

«UDALAREN ERANTZUKIZUNA»

Tolosako Udalak lizitazio publiko bidez esleituta dauka Tolosako kiroldegiko kudeaketa. ELAk uste du zerbitzu publiko azpikontratatu den heinean, zerbi-

trek zerbitzuaren beharrak barnebiltzen dituela. Zerbitzuaren behar horiez hitz egiten dugunean, ordea, langileen baldintzak ahaztu egiten dira», salatu dute. «Enpresak argi du bere instalazio horietan helburua irabaziak ateratzea dela, baina, zerbitzua bera udalaren erantzukizuna da».

ELAk, bere aldetik, argi du gatazka horren irtenbidea enpresaren eta udalaren eskutik etorri behar duela, «lehenbailehen». «Bide horretan, betiko errealitatearekin egiten dugu topo: udalak zerbitzua azpikontratatu du, eta ulertzen du azpikontratatu duen momentutik ez dela bere ardura, baina zerbitzu publikoa azpikontratatzeko badauzka bere eraginak eta udalak ezin du isilik geratu gatazka honen aurrean».

KIROL JARDUERETAN ERAGINA

Kiroldegiko langileen grebak instalazio horiek erabiltzen dituzten kirol taldeen jardunean aldaketak izan ditzake. ELA sindikatuak esan du pasa den astean elkartu zirela kirol taldeekin eta langileen egoera azaltzeko tartea hartu zutela.

Langileek bihar grebari ekin baino lehen, elkarretaratzea egingo dute gaur, 17:30ean, Usabal kiroldegia aurrean.

ATZO, BATZARRA

Atzo eguerdian kiroldegia kudeatzen duen enpresarekin bildu ziren ELA sindikatuko ordezkariak, eta hainbat proposamen jaso zituzten. Horiek iluntzean eztabaidatu zituzten langileekin eginiko batzarrean. Beraz, edizio hau ixtarako, greba egitea zen lehen aukera.



zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Bidean jarraituz
dokumentala

Martxoak 21 asteartea
19:30ean
Villabonako Gurean



Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Anonyme popular
bertsolaritza saioa

Martxoak 26, igandea
19:30ean
Villabonako Gurean



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



JAZARPENA SALATZEN

Voith paper-fabrikako langileek elkarretaratzea egin zuten pasa den ostiralean, Voithen sindikalismoari oztoporik ezlelopean. Ekimenak helburu izan du komiteko kideek «pairatzen duten jazarpena» salatu eta horren aurrean antolatutako deia zabaltzea. ATARIA

Festa giroak ez du etenik izango asteburuan Berastegin

Leyre Carrasco Berastegi

Gazte Festak ospatuko dituzte asteburuan Berastegin. Baina giroa ez da etenik izango, pasa den larunbatean mus txapelketa izan zuten Urepele elkarteak. Lehen saria Xabi Barriola eta Eli Barriola anai-arrebek lortu zuten, eta bigarren, berriz, Arritxu Uranga eta Ane Urkizu sailkatu ziren. Egun horretan, frontenis txapelketako finalak ere jokatu zituzten eta Julen Garaiburuk lortu zuen bakarkako garaipena Iker Saizarren aurka (30-15). Binako partidetak mutiletan, Iraitz eta Julen Garaiburuk irabazi zuten Elberdin eta Julen Amonarriren aurka (30-21), eta nesken binakakoan, berriz, Izaro Garziarena eta Aiara Agirrezabala izan ziren garaile Naitze Garaiburu eta Mireia Barriolaren aurka partidaren (30-29).

Asteburu honetan festak ez du etenik izango. Beste urteetako egitarau «antzekoa» prestatu dutela esan du Larraitx Garai Urepele elkarteak lehendakariak, baina badira berritasunak tartean: «ping pong txapelketa antolatatu dugu ostiralean, eta larunbatean, txakolin dastaketa egin bitartean, toka izango dugu».

EGITARAUA

Ostirala, hilak 17

17:00. Ping pong txapelketa azkarra, Urepelen. **19:00.** Pintxo pote. **20:00.** 40 urte ta behera niek bakarriketa, Urepelen. **00:00.** Meliora taldea.

Larunbata, hilak 18

13:00. Txakolin dastaketa toka. **14:30.** Bazkaria. **18:00.** Bide batez erromeria. **21:00.** Zahagi ardoa eta bingoa. **00:00.** DJ Javi Hidalgo.

Ibarra-Galtzakomik liburuxka argitaratu du Galtzaundik

Lehiaketaren hamabosgarren urteurrena ospatzeko, azken bi edizioetan saritutako 22 lan bildu ditu Galtzaundik, Ibarako Udalarekin elkarlanean

Leyre Carrasco Ibarra

Euskarazko komikigintza eta sormena sustatzea du helburu Ibarra-Galtzakomik lehiaketak. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen du urtero, eta euskara hutsean Euskal Herrian egiten den lehiaketa bakarra izaten da. Hala, irudimenari tiraka, artista gazte eta helduek euskarazko istorioak komiki bihurtzeko aukera izaten dute.

Pauso bat aurrera eman nahi izan dute oraingoan, eta Ibarra-Galtzakomik komiki lehiaketaren hamabosgarren urteurrena ospatzeko, XV. eta XIV. edizioetan saritutako lanak liburuxka batean bildu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarako Udalarekin elkarlanean.

Bertan, 22 lan jasotzen dira guztira, eta lau atal desberdinetan banatu dute liburuxka: bederatzi urteko irabazleen lanak jasotzen dituen atala da lehen-dabizikoa; bigarrenean, berriz, 10 eta 12 urte bitarteko sarituen lanak jasotzen dira; hirugarrenean 13-16 urte bitarteko irabazleenak, eta azken atalean 17 urtetik gorako irabazleen lanak. Kategoría bakoitzeko lehenengo saria, bigarren saria eta Ibarako onenaren lanak agertzen dira bertan.

Idoia Lahidalga Galtzaundiko kideak azaldu bezala, «azken hamabost urte hauetan komikiak aurkeztu dituzten guztiei esker, errak emateko eta lehiaketari ikusgarritasuna emateko» helburuarekin sortu dute liburux-



Tomas Ugaldebere eta Idoia Lahidalga Ibarra-Galtzakomik liburuxkaren aurkezpenean, atzo. LEYRE CARRASCO

ka, eta hemendik aurrera ere jarraipena izango du. Lehen alea argitaratu berri dute, baina asmoa bi urtetik behin kaleratzea izango dela jakinarazi du Lahidalgak.

Liburuxka saritutako lanen egileen artean banatu dute, baina eskuratu nahi duen edonork oraindik horretarako aukera izango du Ibarako udaletxean, kultur etxean edo Galtzaundiren egoitzan, doan.

EDIZIO BERRIA

Aurten, XVI. edizioa izango du komiki lehiaketak, eta dagoeneko edizio berria antolatzen hasiak direla adierazi du Tomas Ugaldebere euskara teknikariak: «Espero dugu liburuxkan jasotzen diren lanak inspirazio izatea antolatzen hasia dugun komiki lehiaketako XVI. edizio-rako».

610 izan ziren azken bi edizioetan Euskal Herria osotik lehia-

ketara aurkeztu ziren komikiak; 325 lan jaso zituzten XIV. edizioan, eta 285 komiki, berriz, XV. edizioan.

Edizio berrian parte hartze kopuru hori «handitzeko» asmoa dutela esan du Ugaldeberek, eta horretarako, komikia eta marrazkigintza pasio duen edonori gonbidapena luzatu diote, «bertan parte hartu eta euskarazko komikiak sortuz disfrutatzera».

Mozorro Festa

Bozkatu gustukoena
Ataria.eus

nekatur
Euskadiko Landa Ostatuaren Elkarteak

'NEKA opari TXEKEa'
Nekaturreko edozein ostatuaren erabiltzeko 120€ko opari txekea
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahaiaren saria

KIMETZ dendako ANDIA etxeko jertsea
www.andia.eus • Korreo kalea 35, Tolosa
Ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

ERRIGORAKO produktuez osaturiko 2 kaxa
errigora.eus
AtariKide saria
www.errigora.eus

ataria
argazki lehiaketa

Unai Ugartemendia Altzo

Azken urteetako mendi korrikalaririk ezagunenetakoa da Iñaki Olano (Altzo, 1988). Euskal Herriko hainbat lasterketa irabazi eta gero, euskal selekzioarekin lehiatzeko aukera izan zuen nazioartean. Gaur egun, Soronea Ammma taldeko kidea da.

Egun, mendi korrikalari ezaguna zara. Baina zein kirol-tan aritzen zinen gazteagoa zinenen?

Pilotan ibilitakoa naiz. Hogeitatera arte edo, Altzoko, Alegiako eta Ikaztegiako pilota eskolatan ibilitakoa naiz. Ez genuen gauza handirik egiten, baina, Euskal Herriko hainbat frontoitan ibilitakoa naiz. Hasieran, aurrean jokatzeko nuen, baina, urteak aurrera joan ahala, atzean amaitu nuen. Etxean, halere, gurasoek beti izan dute mendizale-tasun handia, eta nik ere hiru milako batzuk oso garaiz egin nituen.


Zergatik utzi zenuen pilota?

Eskuetako minarekin ibiltzen nintzen, eta asko sufritzen nuen. Horrez gain, ikusten genuen geure etorkizuna ez zela pilotaren inguruan izango. Astebururo partiduak izaten genituen, eta, urte horiekin badakizu, parrandarako gogoia ere izaten da [barrez]. Oso oroitzapen onak dauzkat garai hartakoak. Jende asko ezagutzeko aukera izan nuen, besteak beste, gaur egun pilotari handia den Jon Ander Albisu, Beñat Urretabizkaia, edo Mikel Artola bera. Ordurako, jada, nahiz eta gu baino gazteagoa izan, agertzen hasia zen Iñaki Artola bera ere. Txikitatik nabaritzen zitzaizkion pilotari onen itxurak. Urte ederrak izan ziren, eta guregatik lan handia egindako jende asko dago. Nola ahaztu Jexux Muruak edo Josean Urretabizkaia urte haietan guztietan egindako lana. Aitak ere ikaragarri lagundu zidan pilotako urteetan.

Eta korrika, nolatan hasi zinenen?

Apustu bat egin genuen Behobia-Donostiaren aitzakian. Sei izango ginen parte hartu behar genuenak, eta azkeneko hirurek lehen hirurei bazkaria ordaindu behar zieten. Orduan hogeit minutuko korrika saioak egiten nituen! Gaur egun apustu hartaz gogoratzean, oraindik ere barrezka hasten naiz [barrez]. Lehen Behobia hura oso polita izan zen, eta, gainera, bazkaria irabazteko gai izan nintzen. Geroztik ez naiz hara itzuli, nahiz eta askotan pentsatu dudana itzultzea.

«T3T rengatik ez balitz, agian ez nintzateke mendi lasterketetan murgilduko»



IMANOL GARCIA LANDA

IÑAKI OLANO MENDI LASTERKARIA

Hogeit urte bete arte pilotan aritu zen altzotarra; apustu baten ondorioz, Behobia-Donostia lasterketan parte hartu, eta T3T probarekin hasi zen mendi lasterketetan

Gerora etorri zen mendirako jauzia.

Mikel Senperena lagun minarekin hasi nintzen mendian korrika. Berak Zegama-Aizkorri mendi lasterketan irteteko dortsala lortu zuen, eta hari laguntzera joan nintzen lasterketa egunean. Urbiatik Zegamarako zatia egin nuen berarekin. Haren atzean joan nintzen hura animatuz. Gogoan daukat azken jaitsieran, eta zegoen lokatzarekin oinetakoa bertan gelditu zitzaidala. Jarduera hura gustatu, eta, hurrengo urtean T3T-Tolosaldeko Hiru Tontorretan (43 kilometro eta +2.900 metro) eman nuen izena. Lehen aldia zuen lasterketak, eta bertan ateratzea erabaki genuen Senperenak eta biok. Hura presatzeko lasterketa batzuk egin nituen aurretik, esaterako, Aiako Mendi Lasterketa, eta Antzuolako 8 Miliak. Askotan esan izan dut, T3Tko lasterketarengatik eta antolatzaileengatik ez balitz, agian, ez nintzatekeela mendi

lasterketetako mundu honetan murgilduko.

Urte batzuetara T2T-Tolosaldeko Bi Tontorrek (24 kilometro eta +1.600 metro) irabazteko gai izan zinen.

Bai. Ordura arte, maratokia egiten nuen, baina, urte hartan, Zegama-Aizkorri korritzeko dortsala lortu nuen lehenbizikoz. Zegama-Aizkorritik Tolosako lasterketara bi aste besterik ez zeuden, eta T2T egitea erabaki nuen. Irabazteko zortea izan nuen, eta oso oroitzapen politak ditut.

Lehen lasterketak jokatzetik lehen lasterketak irabaztera ez zen denbora asko pasa. Zer oroitzapen duzu irabazitako lehen lasterketaz?

2017an irabazi nuen lehen lasterketa. Gabirian jokatzeko den Leharrei (24 kilometro eta +1.300 metro) mendi lasterketa izan zen. Izugarria izan zen. Oso oroitzapen onak ditut lasterketaz, eta azken urteetan, ahal dudanean, joatea gustatzen zait.

2019an euskal selekzioa joateko deia jaso zenuen.

Bai, eta nola ez gogoratu! Nik, beti, selekzioa oso urruti ikusten nuen, baina, denontzako izugarria zen selekzio hura. Bertan zeuden korrikalariak, bertako giroa... Nik, orduan, etxe inguruko lasterketa batzuk irabazten nituen, baina, denbora laburrean jarraikako lasterketa batzuk irabazteko aukera izan nuen. Gutxira etorri zen deia, eta, hasieratik, errespetua eta beldurra sentitu nituen aldi berean. Elastiko urdin hura janzteia izugarria zen niretzat.

Presio berezia sortzen zuen selekzioarekin jokatzek?

Baietz esango nuke. Lasterketa askotara joan, eta askok espero dute zuk irabaztea. Baina selekzioaren elastikoarekin joatea beste kontu bat zen. Lanagatik ez nuen denbora asko izaten entrenatzeko, ordurako jada aita ere banintzen, eta askotan galde-tzen nion neure buruari hura dena aurrera ateratzeko gai izango ote nintzen. Halere, argi neukan selekzioari ezin niola ezezkua eman. Etorkizunean ez nuen aukera gehiagorik izango ziurrenik. Gogoan daukat oraindik ere Jokin Lizeaga mendi korrikalariak aipatu zidana; euskal selekzioarekin Zegama-Aizkorri bat korritzeak ez dauka preziorik, eta aukera izanez gero probesten

saiatu! Bertan pasa nituen hiru urte. Ez genuen bertan ondo bukatzeko aukera izan.

Hassan Ait Chaou bezala, 2021eko abendu hartan, zu ere bertan zinen selekzioarekin lehiatzeari uko egin zenionean. Nola bizi izan zenuen hura dena?

Amorru bizi nuen! Nik, bane-kien mendi lasterketetatik ez nuela bizitza aterako, ez nintzelako korrikalaririk onenetakoa. Baina aurretik egindako lan guztiagatik sentitzen nuen amorru handiena. Egun batetik bestera dena hankaz gora bota zuten.

«Bere egunean euskal selekzioaren elastiko urdina janzteia izugarria izan zen niretzat»

Aurreko guztia ezabatu nahi zuten, bertan zer zegoen ikusi gabe. Izugarriko pena sentitu nuen. Lehiatzen harago, euskararen aldarria ere egiten zuen selekzio hark. Ni bertan egondako denboran, euskaraz bakarrik hitz egiten zen bertan, nahiz, eta, bertan, euskal eremutakoak ez ziren korrikalari batzuk egon. Oraindik ere whatsapp talde bat badugu, eta inoiz ez dut hitz bat erdaraz irakurri.

Zuk oso argi utzi zenuen zuzendaritza honek jarraitzen zuen bitartean ez zinela euskal selekzioa itzuliko. Oraindik ere berdin pentsatzen jarraitzen duzu?

Bai, ez dut iritzia aldatu, eta ez dut aldatuko. Geroztik, hautatzaile berriek, behin baino gehiagotan deitu didate berriro ere itzultzeko. Niretzat, hauek egin dutenak, ez du hitzik. Errespetu bat merezi zuen aurretik egindako lanak.

Selekzioa utzi ondoren, lehenik Camp Base taldean aritu zinen, eta aurretik, berriz, Soronea Amma taldean ariko zara.

Alex Jimenez zor diogu dena. Lan handia egin du taldeak aurrera ateratzeko, eta alde horretatik asko diogu eskertzeko. Talde handia gara, eta oso korrikalari onak daude bertan. Lehengo euskal selekzioetik batzuk ere elkartu gara berriro ere hemen, besteak beste, Hassan Ait Chaou, Ander Iñarra, Iñigo Alzola, edo Xabi Lete. Motibazio bat da korrika egiten jarraitzeko, eta laguntza batzuk izango ditugu aurrera segitzeko. Aurten egingo ditudan lasterketa guztiak haiekin jokatuko ditut.



Eñaut Urkaregik I. Kadeteen Zizurkilgo Saria irabazi zueneko unea. ATARIA

Txirrindulari lasterketen egutegia zabalik berriro

Diru poltsa bat sortu da moto-loturek izan ditzaketen istripu gastuei aurre egiteko; igandean Danenak lasterketa bat antolatu zuen moto-loturik gabe

Imanol Garcia Landa

Gipuzkoan berriro ere txirrindulari lasterketak egiteko aukera zabalduta. Moto-loturek plan toa egin zuten, istripuren bat izanez gero, motoen konponketa ez zutelako bermatuta. Tolosako Oriako Txirrindulari Eskolako lehendakaria den Aitor Aiertzak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzarekin bilerak izan dira eta diru poltsa bat sortu da, motozaleen baliabideetan kalteren bat suertatuz gero horrekin babestuta egoteko. Moto loturen taldekoek baiezkota eman diote, eta orain Eusko Jaurlaritzaren zain daude diru poltsa horren hornitzea nola gauzatuko den jakiteko. Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bermatutako du diru poltsa hori.

Geldialdiak asteburu bateko eragina suposatu die Oriako Txirrindulari Eskolakoei, martxoaren 4 eta 5eko. «Aurreko asteburuan kadeteek Zizurkilan izan ziren, eta juniorrak Altsasun», esan du Aiertzak. «Eta asteburu

honetan normal hasten gara. Larunbatean kadete eta jubenilen karrera dugu, eta igandean emakumezkoek Beasainen Espainiako Kopa dute». Bertan behera geratu diren lasterketak Gipuzkoan egutegian sartu dituzte. «Lasterketa kopuruari dagokionez, ez digu gehiegi eragin. Batez ere izan da txirrindulariek bizi izan duten urduritasun hori, lasterketak egingo ote ziren ala ez jakin gabe egotea».

Eragin handiena afizionatu mailako Aiztondo Klasikoa ez ospatu izana izan da, bai eskualdeko lasterketei zein euskal egutegiari dagokionez. Martxoaren 12an ospatzekoa zen, eta orain astebete bideratu bazen ere moto loturen egoera, Aiztondo Klasikoaren antolakuntzarentzat beranduegi zen dagoeneko bertan behera utzi zuten probaren antolaketa berriro martxan jartzeko.

Txirrindulari proba bat antolatzeak suposatzen duen antolakuntza esfortzua handia dela nabarmendu du Aiertzak: «Errepi-

dean ibiltzen dira txirrindulariak, eta hor trafikoa dago, eta horrek arazo handia suposatzen du. Gainera, hemen N-1 errepi-dea dugu, eta hori ia ezinezkoa da ukitzea guretzat». Gaur gaurkoz, Oriakok antolatzen dituen probak guztiak aurten egingo dira, eta, horrez gain, zenbait urtez egin ez den Abraham Olano Martxa Zikloturista ere egingo da. Ekainaren 4an izango da proba hori.

I. KADETEEN ZIZURKIL SARIA

Ander Altuna Zizurkilgo Danena Kirol Elkarteko txirrindularitza ataleko arduradunak azaldu duenez, moto-loturen plantoak «pixka bat sorpresaz» harrapatu zien: «Bilera batzuk egin genituen eta ikusi genuen Beasaingo kadeteen lasterketa bertan behera geratu zela, eta hemengo Aiztondo Klasikoa ere bertan behera geratu zela, eta gure kadeteak lasterketarik gabe ez geratzearen aldeko erabakia hartu genuen. Beraz, Zizurkilan lehen aldiz kadeteentzako lasterketa bat antolatzea erabaki genuen».

I. Kadeteen Zizurkil Saria ize-na jarri zioten eta igandean egin zen, formatu berri batekin. «Sei kilometro zituen zirkuitu bati zazpi itzuli eman zioten txirrindulariek. Zirkuitu itxia izan zen, Ertzaintzarekin adostuta, eta boluntarioei esker kudeatu ahal izan genuena, moto-loturen beharrik gabe», esan du Altunak. «Oso positiboa izan zen lasterketaren balantzea. Egoerak guri eragin diguna da guk aurrera atera behar izan dugula lasterketa bat gure kadeteek probak izateko, ikusita ingurukoak bertan behera geratzen ari zirela». Motu-loturen afera bideratu izana «albiste pozgarria» dela esan du Altunak: «Azkenean guri in-porta zaiguna batez ere da gure txirrindulariek lasterkak izatea eta orain arte bezala, astebururo-astebururo maite digun kirol hau egiteko aukera izatea».

Kirol emaitzari dagokionez, Danena Kirol Elkarteko Eñaut Urkaregi larrauldarrek irabazi zuen igandeko proba. Lasterketan zehar mugimendu dezente izan zen, eta azkenean talde bat osatu zen ihesaldian. Urkaregik aukera izan zuen talde horretara iristeko, eta azken itzulietan taldetxo bat izan zen aurrean eutsi ziona, eta beraien artean jokatu zuten proba esprintean. Azkarrena Danenako txirrindularia izan zen, garaipena gogoz ospatuz. Bigarrena Unai Moran (Cafe Dromedario Flotamet) izan zen eta Ekain Lizeaga (Zatika Goierri) hirugarren.

Dinamika onarekin jarraituz

Aulkitik

Eider Tejeria

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Bi asteburutan jarraian hiru puntuak lortuta, gogotsu geunden Burgosi aurre egiteko. Bagene-kien aurkari zaila izango zela, 3. postuan baitzeuden taulan, baina guk ez genuen asmorik dinamika ona alde batera uzteko.

Aspaldiko partez goizez izan genuen partida eta, nahiz ezta martxo hasiera izan, eguzkia eta beroa genituen lagun Usabalen (eta bai Elena, azkenean aurkariak ere Usabalen agertu ziren bota egokiek...).

Partida intentsitate handiare-

kin hasi zen bi taldeen aldetik, aukera garbirik gabe ez bata ez bestearentzat. Beraiek beren joko argi zuten, baloi luze asko, talketara gogor eta bizkortasuna aurrean. Hala ere, guk gure jokoa ondo eutsi genion, partidaren erritmoa kontrolatuz eta baloia alde batetik bestera ukituz. O eta Okoarekin bukatu zen lehen zatia.

Bigarren zatia antzeko joan zen, bero nabaria zela-eta erritmoa pixka bat lasaitu zen arren. Beraiek bukaeran pixka bat gehiago estutu zuten, baina bagenekien zeinen garrantzitsua zen partida honetan punturen bat ateratzea eta, defentsa lana ona eginez, markagailua aldatu gabe amaitu zen partida.

Nahiz eta hiru puntuak lortu ezin izan, pozik amaitu genuen taldeak egindako lana eta esfortzuagatik.

Orain San Ignazioren aurkako partidaren zentratuta daukagu burua, dinamika onarekin jarraitzeko asmoz joango gara asteburuan Bilbora!

Patxi Plazaola hirugarren, Torx L'era Pro lasterketan

ORENDAIN // Patxi Plazaola txirrindulari orendaindarra hirugarren postuan helmugaratu zen asteburuan jokoan izan zen Torx L'era Pro lasterketan, Giro-nako Bordils herrian abiatu eta amaitu zen 104 kilometroko proban. Hasiera gorabeheratsua zuen zirkuituak, eta guztira, 1.410 metroko desnibel positiboa. Col Paton izan zen irabazlea, 3.43.19ko denbora eginda, eta Alex Ruiz sailkatu zen bigarren, 3.50.17ko denborarekin. Patxi Plazaolak segundo bat gehiago behar izan zuen, eta orendaindarraren denbora berdina egin zuen laugarren sailkatu zen Ricard Calmetek.

Maria Navascues bigarren izan da Gipuzkoakoan

TOLOSA // Atletico San Sebastian klubeko Maria Navascues atleta tolosarrak bigarren postua lortu du Gipuzkoako 10 kilometroko Errepideko Txapelketan. EHUko Udaberriko Lasterketa izan zen jokoan asteburuan, eta proba hori probestu zuten txapelketaren sailkapena egiteko. Navascuesek seigarren egin zuen Udaberriko Lasterketan.

Goar Lopetegi garaile Senpere Traileko Gotorlekuen Itzulian

IBARRA // Hainbat probek osatzen dute Senpere Trail eta Goar Lopetegi ibartarrak bigarren luzeena irabazi zuen larunbatean, Gotorlekuen Itzulia izenekoa. 42 kilometro eta 2.800 metroko desnibel positiboa gainditzeko, Domusa Teknik Team taldeko mendi lasterkari ibartarrak 4.09.45ko denbora egin zuen. Lopetegik bigarren izan den Jonathan Julesi ia zortzi minutu atera zizkion (4.17.21), eta hirugarrena Quentin Camou-Juncas (4.18.44) izan zen.

Laiane Arrospidek irabazi du II. Trail Peña Isasa lasterketa

TOLOSA // Igandean izan zen jokoan II. Trail Peña Isasa lasterketa eta Laiane Arrospide tolosarra izan zen irabazlea. Proba Arnedon (Errioxa, Espainia) egin zen, 30 kilometroko luzera eta 1.380 metroko desnibel positiboarekin. Soronea-amma taldeko korrikalari tolosarrak 3.08.22ko denbora egin zuen. SD Juventus taldeko Uxue Zorrilla izan zen bigarren (3.17.49), eta Mirandes de Montaña-Novadiet taldeko Beatriz Delgado hirugarren (3.24.16).



ASTEAZKENA, 2023KO MARTXOAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 15

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Aiokoitzal eta antzerki txo-
txongiloak. Eskolan, 11:30ean.

Ibarra. Ahoz Aho: Martha Escudero.
Kultur etxean, 18:00etan.

Tolosa. Ahozkotasunaren Gala Na-
gusia, 10:00etan Leidorren.

Tolosa. *Cualquiera que os de muerte*
liburuaren aurkezpena. Batzar are-
toan, 19:30ean.

Zizurkil. Ipuin tarte, liburutegian,
17:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen
eguraldi iragarpena.

12:30. Pasahitza. Eskualdeko albis-
teak.

14:00. Errezetak. Aintzane Artola.

18:00. Desafioa. Herri kirolak.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza,
Imanol Artola Felix-ekin.n.

28 KANALA

11:30. Gaurkoan Tolosaldeetik

15:00. Musika Zuzenean

15:30. Gaurkoan Tolosaldeetik

16:00. Urrutiajunbe

17:00. Danbako 2022

22:00. Zer Esan? (Kirola, elikadura
eta osasuna).

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. O. Etxebeste.
Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Za-
balarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro ederra. Goizeko
lehen orduetan hodei ba-
tzuk agertuko badira ere,
ateri egongo da eta eguerdirako ze-
rua ia erabat urdin geratuko da. Arra-
tsaldean, goi-hodei batzuk salbu,
zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua
nagusituko dira. Haizea aldakor ibiliko
da. Tenperatura igo egingo da eta
16-18 graduan joko du goia.



Bihar. Giro eguzkitsua. Egun
osoan zeruan urdina nugu-
situko da, eta nahiz eta une-
ren batean hodeiren bat agertu,
eguzkia nagusituko da. Hego-haizea
ibiliko da, tarteka bolada biziekin eta
tenperaturak nabarmen egingo du
gora, 23-25 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzien egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Errigorako produktuak erosteko aukera zabalik

‘Bat egin Errigora Balioekin’ leloarekin burutuko da kanpaina,
hilaren 29ra arte; eskualdean jasotzeko hamalau puntu daude

Erredakzioa

Errigoraren Nafar hegoaldeko
uzta eskutik eskura kanpaina
martxan da, eta hilaren 29ra arte
bertako oliba-olio birjina estra,
kontserbak, arroza, pasta, lekale-
ak eta fruitu lehorrak eskatu ahal-
ko dira. Nabarmendu dutenez,
produktu guztiak «kalitate bikai-
nekoak» dira, eta denek dute
Errigora Balioak berme-zigilua.

Hain justu, aurtengo kanpai-
naren leloa *Bat egin Errigora Ba-
lioekin* da. Euskarazko etikete-
tan ematen da berme-zigiluaren
berri, eta Errigorako arduradu-
nek zigiluak duen esanahiari
eman diote garrantzia: «Berme
zigilu horrek produktuak lau ba-
lio (gutxienez) badituela ziurta-
tzen du: Euskara, Auzolana, Ber-
takotasuna eta Nekazariekiko
harreman bidezkoa». Horrega-
tik, herritarrei dei egin diete
«bestela» kontsumitzeko, Erri-
gora Balioen arabera kontsumi-
tzeko: «bertako elikagaien alde,
euskaraz, auzolanean eta ekoiz-
penean harreman bidezkoak
sustatuz. Gainera, bultzada bat



Aurtengo kanpainaren aurkezpeneko irudia. ATARIA

suposatzen du ekoizleek elkarla-
nean hasitako Errigora Balioak
identifikatzailearentzat, abia-
puntuko lau balioetan edota be-
rrietan sakontzeko».

Bestalde, urtero moduan kan-
paina aurrera ateratzeko izan
duten «ehunka boluntarioen la-
guntza eskertu dute: «Gainera,
AEK, Sortzen eta Ikastolen El-
kartearekin batera ehunka herri-
tan egin ahaliko da produktuen
eskaera. Produktu horiek herri-
tarren eguneroko kontsumora

ekartzeko eredu honi jarraikiz
urte osorako despentsak betetze-
ko unea da».

Eskaerak Errigorako webgu-
nean (*Errigora.eus*) egin behar-
ko dira. Eta produktuak jasotze-
ko eskualdean inoiz baino puntu
gehiago izango dira, aurtan, To-
losaldeko 14 herritan jaso ahaliko
baitira: Abaltzisketa, Aduna, Al-
kiza, Amasa-Villabona, Amezke-
ta, Anoeta, Asteasu, Berastegi,
Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Oresa,
Tolosa eta Zizurkil.

AZKEN ETXEBIZITZAK

1. FASEA

ANOETA – LEKU EDER
3 EDO 4 LOGELA - GARAJE ITXIAK
TERRAZA PAREGABEAK HEGOALDERA

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484